

Gaseosak eta sifoiak bertan egiten zenekoa

Ardo beltza gaseosa edo sifoiarekin nahastea sasoi bateko edari popularrena zen. Gasdunok ekoizteko fabrika ugari zabaldu ziren han-hemenka, tartean Ermuko Ostatukoan. Ordukoen berri ondorengo lerroetan.

Gaseosa eta sifoiak estimazio handia zuten sasoi batean, edaria bizitu eta freskagarri sententzia ematen zutelako. Garagardo, bermut eta batez ere ardo beltzarekin konbinazio gustagarria egiten zuten, haien gustua larregi aldatu barik, alkohol graduak gutxitzen lagunduz. Gaseosarekin nahastea edariak gozorantz jotzen zuen moduan, sifoiarekin garratzerako bidea hartzen zuten; gustu kontuak beste behin. Ostatuko alaba den Begoña Mallagarak karioño handiz gogoratzen ditu hare-

kin lotzen dituen urteak. Etxea aitaren aldeko aitxita-amamek erosi zuten, eta jardueraren kargu seme-alabetatik zein geratu pentsatzeko unea ailegatzean, Constan, Begoñaren aita ikusi zuten egokien, ordurako Maria Aranbururekin ezkondu eta moztadorerako sinpatia berezia zuena.

Fabrikak nonahi

Ermuko Ostatua eraikin handia zen eta denerako lekua zuen: taberna, jatetxe eta baita gaseosa eta sifoiaren fabrika batentzat lainekoa. Ingurumari honetan ez zen bakarria izan: banaka batzuk aipatzearen, 36ko gerraurrean, Eibarren Ciriaco Mendizabalek bat jarri zuen, Sport izenarekin jardun zuena gaseosagintzan; urteak beranduago, Elgoibarren Pedro Arriaga eta Jose Jaiok bion abizenen konbinazioarekin bataiatu zituzten merkaturatutako lejia eta gaseosak; Soraluzen Pastora Iraolak amarengandik ikasi eta bere kaxetara hasi zen gaseosa kontuokin; Ondarrun, bi egon ziren, Abadea izenekoa bata; Berrizkoa, The Soda Water zen; Durangon, hamarkada desberdinetan ekoizle izan



Begoña Mallagarak, Ostatuaren lagun artean eta euren eginadako sifoi botila baten aurrean (1961).

ziren Alejandro de Larrea, Francisco Aspiazu, Victor Munitxa, Juan Azkonizaga, Jose Erzila, Jesus Ruiz, Pio Arana eta Emilio Esparzaren alarguna; Elorrioren, Maria Atxutegi eta Bernardino Igarra; Markinan, Ignacio Legarra... Non ez?

Ostatura itzulita, moztadorearen kargu Constan zegoen eta jatetxearena Maria, sukaldari trebea: berdura menestra, karakolak edo txipiroiak ikusgarri egiten zituen arren, bere espezialitatea ehiza zen "gatz-berakata emonda, zoragarri prestatzen zitxuan kazarixak ekarritxako oilagorak", diosku Begoñak amaren sukaldatzeok akordura ekarriz. Bere erregeta koadernoan gordeta dauka familiak; letra dotorez han datoz eguneroko jateko moduko makarroi, zopa eta oilaskoekin batera, jaieguntarako langosta, rape eta reposteria gozo-gozoak.

Bezeroen artean edari gasdunak gero eta estimazio

handiagoa zutela erreparatuta, etxean bertan egiteari ekin zioten. Tabernaren atzeko aldea atondu zuten horretarako. Kristalezko botilak, hauek urez betetzeko makina, txapak, sifoiak, tartaria eta abarrok Bartzelonatik jiratuko zituzten, Begoñaren akorduz, "González y Mailloren bitxartez, papelak egoten ziran-eta hantxe gordeta". Etxeko guztiak hartzen zuten parte gaseosagintzan. "Aitxak esaten zozan: 'Gaseosa kaja batzuk bete bihar doguz eta guazen!'. Aurretik berak botata ekan tartarikua, sakarinia eta limoian esentzia. Tartarikua dira kuadrado zuri batzuk, gasa emoten dotzena. Gaseosiak besterik ez dau bihar, horretxek hirurok eta ura. Makiniak esaten zeban honenbeste gradura ailegau dirala, orduan botatzen jakon ura. Aitxak beste zeozer eitxen zeban bitxartian, nik haxe: urez bete botillak makina baten". Litro erdia baino txikiagoko botila



Victor Mallagarak, Ostatuko semea, Erdiko kalean sifoiak partitzen (1959).



Probaleku 8, behea

Zure publizitatea:

DROGETEN ITTURI

Ermua eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com

haiei, “nahastiaik eindakuan, txapa bat ipintzen jakuen ahuan; ondo ixteko, beste makina batekin gogortzen genduzan, ondo prezintautu jua bihar ziran-eta, gasa galdu ez zeixan”.

Tentu handiz

Gasdunak izatean erreben-tatzeko arriskua zuten eta, ez bazen sekula ezer gertatu, kontu handiz egin behar zen guztia. Sifoiak ere bere arriskua zuen; kristal sendoko botilak ziren, barruan hodi bat, tubo bat zeramana eta honen ahoan manilladun txapel bat. Sifoi-botilaren barruko gehiena ura zen, eta anhidrido karbonikoa nahasten zitzaion;



Ostatuko etxea, bota baino hilabete batzuk lehenago (1976).



honek sortzen zuen manillari sakatuta presiora irtengo zen gasa. Dzi! Dzi! Tartariko, esentzia eta anhidridook neurri-neurrira bota behar ziren, tantaka eta pisatuta.

Banaketa Victor semea arduratzen zen. “Bijitxuaraz kaja bi gaseosa”, eskatzen zioten. Kajok mugitzeko hiru erroberadun karrotxo berezi bat zuen eta harekin partitzen zituen, “taberna eta etxe partikularretara, kalerik kale. Karruakin danera ailegatzan zan gure Victor, Ermuan orduan danok paraje lauan bizi giñan-eta. Santa Ana, Santiago eta Ongaraixok ein barik ondiñok!”. Botilak gero berrerabili egiten ziren, garbitu urarekin ondo-ondo eta berriro betetzeko prest! Orduan birziklatzea zer zenik ere ez! Ordainketak ere momentuan baino, geroko laga-

Victor Mallagarai, sifoi banaketa egiten karro batez lagunduta (1957).



tzen ziren sarritan. “Pagau-kuat” esan eta aurrera!


Eibarren Ciriaco Mendizabalek bere gaseosa botilak Estixako iturburuko urarekin betetzen zituen modura, Ostaturkuan San Pelaixokoa hartzen zen, “han beti ur ona egon dalako, bertan jaioztzen zan-eta”. Denerako behar zen: mostradorerako, sukalderako, garbitasunerako, gaseosa eta sifoiak betetzeko... Begoñaren berbetan, “Ermuan urakin txarto ibili gara beti. Eguna jua eguna etorri, eskas beti eta amak ur-depositxua eixia pentsau eban. Lurpekua ein genduan, personia tente sartzeko bestekua eta hantxe amaitxu ziran arazuok betiko!”.

Isidro Beitia Otxua baserrian jaio zen, Ostatu parean eta etxean entzunda dauka zelan behin Alfontso XIII. Erregea, Donostiatik Bilbora

autoan zihoala, Aitxixo igoztzen hasi eta Ziharreko bueltara orduko, kotxeak indarrik ez-edo eta igo ezinik geratu zirela. Ostatuan zaldia zi-tuzten eta haiei lotu autoa eta Aitxixoko lautadaraino erremolkatu zutela, erregea barruan zela.

Ostatukua, korta eta guztiko baserri izatetik, dantza-saloi arrakastatsua, kantu eta kontuetarako taberna estimatua, tripa-zorriak asetzeko jattetxe apartekoa, gaseosa eta sifoi fabrika porrokatua eta Ermuko Batzoki ere izatera ailegatutakoa, 1976an bota zuten, gaur eguneko Kutxabankeko gaineko etxebizitzak egiteko. Haren hormak ez jakin zenbat ipuin eta taberna bueltako auto entzundakoak diren eta mostradore ostekoek zenbat “Etarazak pare bat arda gasiosiak!”.

Estibalitz González



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal

tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaurre, 2 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia

Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00





943 170474 688819336